

EGILEA Itziar de la Encina-Bizarra Lepoan Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA: Getxoko Udala-Euskara Zerbitzua

ILUSTRAZIOAK: Kepa de Orbe

ARGAZKIAK: Ana Gonzalez Herrero- Artefacto estudio

San Nikolas liburutegia




GETXO BARRIA



neguri

regoyos

ezkieta



Neguri

Neguri hitzak bi osagai ditu, negu eta uri. "Neguko hiria" esan nahi du eta izenak esaten duen moduan, ez zen Areeta bezala udarako bakarrik.

XIX. mende amaiera arte baserri solteren bat besterik ez zegoen. XX. mende hasieran familia bakarreko etxeak, kale zabalak eta lorategiak egiten hasi ziren. Horregatik, hemendik aurkitzen ditugun etxeak nahiko txukunak dira.

Lexarreta

Hitz honek bi osagai ditu; *leizar* edo *lizar*, zuhaitza eta *-eta* atzizkia.

Historian Lexarreta auzoa, zubia eta bidea izan da, baina gaur egun kalea besterik ez da.

Auzoari Neguri Langile esaten diogu. Ingurua etxez bete zenean, Lexarreta auzoa Neguri auzoaren ondoan zegoen. "Langile" gehitu zioten txaleten ingurunetik bereizteko.

San Ignazio

Gaur egun elizari eta Neguriko tren-geltokitik elizara doan kaleari deitzen diogu.



XX. mendearen hasieran Negurin ez zegoen etxerik eta bertako geltokiak "San Ignacio" izena zuen handik hurbil zegoen baselizarengatik. Neguri sortzean, auzoaren bultzatzaileek tren-geltokiari izena aldatzea eta Neguri jartzea eskatu zuten.



Oraindik Neguriko geltoki zaharra ikus dezakegu.



Karmengo Andre Maria

Neguri auzo berria eraikitzean Karmengo eliza eraiki zuten. Izen bera darama ondoko kaleak.



Regoyos

Darío de Regoyos margolari ezagunak, Getxoko paisaia eta jendeak margotu zituen eta Udalak Negurin plaza hau eskaini zion.

Duela 80 urte plaza gutxi zeuden Negurin. Kale nagusia eta harriz betetako galtzadatik pasatzen ziren posta eta Bilborako karroak, oinezkoak, txirrindulariren bat, etxeke langileak eta baserritarren bat bere astoarekin, zaldiak, kotxeren bat edo beste,... Oro har leku lasaia zen eta jendea bide ondoan egoten zen lasai-lasai.



Erdi itota, iturritxo bat dago eta eguzkitara orientatuta dago.

Avanzada

Zugatzarte, Algortako etorbidea eta Bilborako errepidea elkartzen diren inguruari deitzen zitzaion. Lehen gurdi-bidea zen.

Bilbo eta Getxo arteko errepidea egin zenean, Bilbao-Avanzada izendatu zuten ofizialki, Bilbotik hasi eta Avanzadan amaitzen zelako. Horregatik, Avanzada errepidea deitzen hasi zitzaion.

Ezkieta

Hitz honek bi osagai ditu: *ezki* eta *-eta* atzizkia. Ezkia oso zuhaitz arrunta da parke eta lorategietan.

Neguri auzoa sortzean jarri zioten kaleari izena.

Jolaseta

Jolasteko lekua esan nahi du eta bi osagai ditu: *jolas* eta *-eta* atzizkia.





Neguri sortu zen garaian, garrantzi handia eman zitzaion kirolari eta lur eremu bat gorde zen kiroletarako. Jolaseta izena eman zioten lur hari. Besteak beste, futbol-zelaia eraiki zuten eta Bilboko Athletic taldea han aritu zen 1911tik 1913ra arte.

ARIKETAK:

1. Zer esan nahi du *Neguri* hitzak?
2. *Lexarreta* eta "*Neguri Langile*" gauza bera dira?
3. Zeri deitzen zitzaien *San Ignazio*? Eta gaur zeri deitzen diogu?
4. Imajina ezazu Regoyos margolaria zarela. Nola margotuko zenuke garai hartako plaza? Bertatik pasatzen zen jendea ere kontuan hartu.
5. Bilatu ezkia zuhaitzari buruzko informazioa.
6. Zer esan nahi du *Jolaseta* hitzak?

AREETA





romo

tren geltokia

eeta

a ana

Harea Ibaizabalen ahotik Arriluzeraino heltzen zen, horregatik inguruari Areeta deitzen zaio.



Antzina, etxeak egin zituzten arte, Areetan dunak ziren nagusi. Areetako pasealekua leku garrantzitsua izan zen: Portugaletera joateko txaluparen ontziratze-lekua zegoen, herriko benta, Getxorainoko galtzada, porlana egiteko fabrika eta bainuetxeak ere bertan zeuden.

XIX. mendean Abrako kanpo portuko obrak hasi ziren. Kai horrek korronteak aldarazi zituen eta Areetako hondartza eta bainuetxea desagertu egin ziren. Hura konpontzeko Areetako kaia eraikitzea erabaki zen.

Tren geltokia



Areetako plaza, Bilbao-Las Arenas trenbidearen amaierako geltokia izan zen. Trenaren lehenengo bidaia 1887an izan zen eta 30 minutu behar izaten zituzten Areetara heltzeko.

Zugatzarte

Hitz honetan bi zati bereiz ditzakegu: *zugatz* (zuhaitz) eta *-arte*.



Zugatzarte gaur egun etorbide ederra bada ere, kaia egin zuten arte, Areta hondartzako haremunez estalitako ingurua besterik ez zen izan. Kaia egin zutenean, ingurua txukundu eta zuhaitzak landatu zituzten. Harrigarria bada ere, 1938an udaletxean abereak bertara bazkatzera eramateko eskaera jaso zen.

Mesedeetako Andra Maria

Gaur egun ezagutzen dugun eliza ez da originala. Eraiki zuten lehenengoa Gerra Zibilean erre zuten.



Evaristo Txurruka

Ingeniaria eta Mutrikuko kondea izan zen. Bere lanik garrantzitsuenak Portugaleteko burdinazko kaia eta Santurtziko kanpoko portua izan ziren.



Kai honetan bere omenez eskultura hau eraiki zuten. Langileen garaipena itsasoaren indarraren aurrean irudikatu nahi da.



Arretaz begiratzen baduzu...

Evaristo de Churruga eserita dago eta alboan bi pertsona ditu (batak industria adierazten du eta besteak nabigazioa). Aurrean, beste bi irudi daude: Bilbo eta Neptuno, bata bestearen kontra borrokatzen eta haien artean, harri-bloke handia dago. Bizkaiko eta Gipuzkoako armarriak landuta daude harri berean, eta Bilboko brontzez.

Maximo Agirre eta Ezequiel Agirre

Kale-izen bezala ezagutzen ditugu, baina gizon hauek izan ziren Areta auzoko bultzatzaile handienetakoak.

Maximo Agirrek gaurko Areta, Lamiako eta Romoko lurak erosi zituen. Garai hartan harea eta padurak zirenak, lehortu eta txukundu zituen, Areta auzoa bertan eraikitzeko. Bilboko alkatea ere izan zen.

Areetako trenbidearen partaide handiena izan zen Ezequiel.

Bizkaia zubia

1893. urtean inauguratu zen Ibaizabal itsasadarraren bi aldeak lotzeko.



Gaur egun munduan lanean dagoen mota honetako bakarra da, gainerako guztiak itxita daude edo turismorako baino ez dira erabiltzen. 2006an UNESCOk gizateriaren Ondare izendatu zuenetik jende asko hurbiltzen da hona.



Santa Ana

Baseliza hau eraiki zutenean, ingurua harez beteta zegoen, ez zegoen besterik. Hemen egiten ziren erromeriak inguruetako jendetsuenak ziren.



Santa Ana baseliza dagoen ingurua Lamiakoko hareagunea izan zen.

ARIKETAK:

7.-Zenbat denbora behar du metroak Bilbora heltzeko Areetako geltokitik? Eta zure etxetik hurbilen dagoen metro-geltokitik? Imajina ezazu lehen zenbat irauten zuen Bilbo-Areeta bidaiak, ezetz asmatu!

8.-Zeintzuk dira Zugatzarte hitzaren osagaiak?

9.-Evaristo Txurruka eskultura. Adierazi irudian zer den elementu bakoitza.





- 10.-Zeintzuk izan ziren Areta auzoaren bultzatzaile handienak?
- 11.-Areetatik Portugaletera joateko, zelan egin dezakegu?
- 12.-Zer da Lamiako?

PORTUKO PASEALEKUTIK





satisfestegi

ereaga

begoñako punta

atxekolandeta

XIX. mendean eraiki zen portuko pasealekua, Txurrukatik Arriluzeraino.



Arriluze

Izenaren osagaiak argiak dira; *harri luzea*, itsasbeheran bertan agertzen ziren harriengatik.

Arriluze esaten zitzaion Avanzada eta kaiaren arteko lekuari, gaur egun horrela deitzen diogu kaiari. Azken urteotan inguruan portu berria eta merkatalgunea jartzean izen berria asmatu zuten, "Puerto Deportivo de Getxo".



Arrantza-ontziak Portu Zaharretik Arriluzera joan zirenean, arrantzatutakoa sarritan Portu Zaharrean uzten zuten saltzeko, eta gero, amarratzeko Arriluzera joaten ziren. Negurikoek ere bertan uzten zituzten aisialdirako ontziak; belaontziak, yateak, etab.



Atxekolandeta (Atxekolanda)

Izenaren esanahia argia da, haitzean (atxa) dagoen landa eta ez atzean dagoen landa.



Arriluze gainean dagoen haitza da, Begoña izenaz ere ezagutzen dena. Lehen inguru horren izena zen eta abereen bazka egoteaz gain, soro batzuke re baziren. Gaur egun kalearen izena da.

Begoñako punta (Begoñako edo Atxekolandetako gaztelua)



Gaur egun bertako arkupeengatik ezagutzen dugu Begoñako punta, baina izenak historia luzeagoa du. Bertan, Begoña gotorlekua egon zen lekuaren gainean txalet bat egon zen. Arriluzeko kaia eraikitzean egindako lanak zirela-eta, gotorlekua desagertu egin zen betiko. Atxekolandetako gaztelua ere deitu izan zitzaion.

Begoñako arkupeek bi helburu zituzten, mendiari eustea eta atsedeen-lekua izatea. Hemengo haitzak oso ezegonkorak ziren eta lur-jausiak ohikoak ziren.

Gerra Zibilean ospitalea izan zen eta galeriak babesleku izan ziren.

Ballana

Ballana landa Lezama-Legizamon etxe azpiko landari esaten zitzaion. Arriluzeko kaia egitera etorri zen garabiko makinista frantsesak, Balaná izena zuen, horregatik "campa de Vallana" erabiltzen hasi zen. La Bola ere esaten diogu, bertako arroketan kareharrizko haitz handi bat zegoelako.



Ereaga

Ereaga hitzaren osagaiak hauek dira: *harea* eta *-aga* atzizkia.

XVII. mendean Ereagan harrobiak zeuden eta gaur egun hondartza ikus dezakegu.



XIX. mende amaieran Ereagako plazan La Perla izeneko bainuetxe bat eraiki zuten eta gero Igeretxe Bainuetxeak ordezkatu zuen.

Garai horretan hondartzetan eguzkia hartzea modan jarri zen eta Areetako hondartza zikinegi zegoenez, Bilboko jende asko Ereagara joaten hasi zen. Gehienetan trenez etorri eta Las Arenas izeneko geltokian jaisten zirenez, Ereagari "playa de Las Arenas" esaten zioten.

ARIKETAK:

- 13.-Nondik dator Arriluze hitza?
- 14.-Gaur egun kaiari ere nola deitzen diogu?
- 15.-Zer esan nahi du Atxekolandeta toponimoak?
- 16.-Begoñako puntak funtzio asko izan ditu historian. Aipatu baten bat.
- 17.-Ballana landari nola deitzen diozu?
- 18.-Zeintzuk izan daitezke *Igeretxe* hitzaren osagaiak? Argi dago zertarako eraiki zuten, ezta?
- 19.-Gaur, nola deitzen diogu *Arrigunagako* hondartzari? Badirudi lehen berdin gertatzen zela *Ereaga* hondartzarekin: "playa de Las Arenas".

INGURUKO ETXE ETA JAUREGIAK





atxekolandeta

begoñako punta

arriluze

regoyos

avanzada

zugatzarte

Getxon XIX eta XX. mendeen artean Bizkaian hedatutako arkitektura estilo gehien adibideak ikus ditzakegu.

Garai hartako arkitekto ospetsuenen obrak ditugu Getxon: Manuel María Smith, Rafael de Garamendi eta Severino Achúcarro, besteak beste.

Baina zer da arkitekto bat? Eraikinak eta lekuak nolakoak izango diren imajinatzen dituen pertsona da, diseinatu egiten ditu eta gero lan horren jarraipena egiteaz arduratzen da.

Atxekolandetan, Negurin eta Areetako kaian daude Getxoko etxe handiak.

Areetako kaia.

Kaitik buelta bat eman nahi izanez gero, etxe guztien azalpenak aurkituko dituzu.

Inguruan kai hitza duten etxe batzuk daude: Kaiertza, Kaigane eta Kialde.

Kialde



M. M. Smith arkitektoak Zugatzarte etorbidean eraikitako txaleta da. Izenaren osagaiak argiak dira: *kai* eta *alde*.

Cisco

Zugatzarte etorbideko jauregi ezaguna da. 1909. urtean Manuel

María Smith Ibarra arkitektoak eraikia. Ingeles landetxeetan

oinarritutako ingeles estilo berritzailea du.



Itxasbeqi



Zugatzarten kokatutako etxea da. Rafael Garamendi arkitektoak eraiki zuen 1927an. Honen osagaiak ere argi ikus ditzakegu: *itsaso* + *begi*.

Amandrerena

XIX. mendearen hasieran eraikitako txaletetan ohikoa izan zen euskal izenak erabiltzea. Kasu honetan amandre "amama" eta -rena atzizkia erabiliz osatu zuten.



Neguri.

Aretxeta



Neguri auzoan egon zen baserri hau, eta gaur egun kalearen izena da. Toponimo honen osagaiak *aretx*, mendebaldeko euskaraz "haritz" (*quercus robur*) eta ugaritasuna edo lekua adierazten duen – *eta* atzizkia.

Los Rosales

1920an Rafael de Garamendik eraikia. Estilo ingelesekoa, euskal elementuak eta elementu espainolak nahastuta.

Etxearen inguruan lorategi handi bat zabaltzen da. Kokalekua ere benetan bikaina du, izan ere, Neguriko erdialdeko etxadi oso bat berak betetzen du. Seguros Bilbao Sozietateak erosi zuen bertan bulegoak jartzeko.



Izpegi



Eklektizismo erregionalista estiloko etxea da, baserri itxurakoa, estilo horretako lehenengoetakoa. Garrantzitsua da etxe hau Neguriko sarreran egonda, familia askorentzako etxea delako.

Atxekolandeta.

Aizgoien



Atxekolandetan 1909an eraikitako euskal baserri itxurako etxea da. M. M. Smith Ibarra arkitektoaren obra zaharrenetakoa.

Ampuero jauregia

Manuel M^a Smithek 1928an eraikia. Harlandua, "montañas" erregionalista estilokoa, Kantabriako ohiko arkitekturan inspiratutakoa.



Mudela jauregia



Manuel M^a Smithek eraikia 1910ean. Italiako arkitekturan oinarritutako jauregia.

Arriluze jauregia

José Luis de Oriol, 1913. Erdi Aroko itxura du eta estilo aldetik britaniarra da; Ana Erreginaren estiloko elementuak eta estilo Viktoriarreko elementuak konbinatzen ditu.



Itsasoan galdutakoen Etxea (Casa de naufragos)

1920. urtean estilo neo-euskotarrean eraikitako etxea da.

Gaur egun Gurutze Gorriaren egoitza da. Bi solairuko baserri handi baten itxura du eta izkina batean, zirkulu-formako ebakidura duen itsasargia dauka. Itsasargia 1939an piztu zen.

San Nikolaseko kofradiak erabili zuen arrainaren salmenta egiteko. XX. mendean salbamendurako zentro bat antolatu zuten.



ARIKETAK:

20.-Aipatu arkitekto baten izena eta bilatu berari buruzko informazioa liburutegian, Interneten...

21.-Lotu etxeen irudiak izenekin.





22.-Aipatu baserri-itxurako etxe bat.

23.-Non bizi zara zu? Marrastu zure etxebizitza.